

Itzultzaileak

VICTOR HUGO

Itzultzaile: Karlos del Olmo

Hilobiak, azkenean, arrazoia beti bere. Berri-berritan, apirilaren 23an, Shakespeare-ren gainean epairik gorenarekin emateko eta lehenaldia irekitzeko aukera izan dugu: Stratfordeko poeta jaio zeneko egun ospetsua genuen, hiru bider mendetsua. Hirurehun urteren buruan, gizadiak zer edo zer esan behar dio aspaldi-aspaldian iraindutako espiritu bati, Shakespeare Frantziako atarian agertuta bezala, Paris zutik jarri da: poeta, artista eta historialariek eskua luzatu diote mamu bati, haren inguruan ikusten baitzuten poetek Hamlet; artistek, Prospero, eta historialariek, Julio Zesar; basati horditua, arlekin barbaroa; Gilles¹ Shakespeare agertu da eta argia besterik ez da ikusi; bi mendeko esker gaiztoa, azkenik, lilura bilakatu da, eta Frantziak "Ondo etorri, jenioa!" esatea izan du. Gloria argitu da gure artera.

Ilunetan, gure hildako itzaltsuen atxikimendu halako bat igarri da; Moliere irriba-

rretsu ikusi ei dute, Corneille agur egiten; gorroto zaharretatik, aspaldiko injustiziatatik, batere ez, gora-goraka bat bera ere ez, zurrumurru batik ez, berotasun aho batekoa; eta ordu honetan, gauzen muina benetan preziatzen dutenak, despotenganako gorrotoa eta adimendunekiko maitasuna elkartzen dituztenak, justizia egitea adina justizia administratzea gura dutenak, zerura begira dabilzanak, ideal batek liluraturiko bakartiak, ameslariak, miraz daude, hunkiturik, sarrera itzalgarri horren inguruan sortu den isiltasuna dela bitarte.

Basati mozkorra dugu Shakespeare. Basagizona, bai! Oihan harrotu gabeen bizi da, bai, mozkorra, idealaren edalea da. Erraldoia da hostope ikaragarriaren pean. Berak dauka eskuan urrezko kopatzarra, begietatik dario la edaten duen argiaren sugarra. Shakespeare, Eskilo, Job, Isaias-en antzera, pentsamenduaren eta poesiaren jainkoetako bat da, ze-

1 Gilles esaten diote Inauterietako pertsonaia ospetsu bati.

lan edo hala esatearren, Osotasun misteriot-suarekin bat eginik, Kreazioaren sakontasun bera duten horietako bat; Kreazioak berak legez, sakontasun hori itzultzen eta erakusten dute forma eta irudi ugari direla bide, iluntasunak egotzen dituztela lore, adar eta iturri biziak bihurtuta. Shakespearek, Eskiloren antzo, hondogabearen joritasuna du. Hondogabea agortezin da. Zenbat eta sakonago pentsamendua, adierazpena biziago. Koloreak iluntasuna du sorburu. Sinesgaitza da leizeetako bizitasuna; erdiguneko suak sumendia sortzen du, sumendiak laba ekoizten du, laba oxidoaren jatorri da, oxidoak zuztarra du bilatzen, kausitzen eta ernetzen, zuztarrak lorea sortzen du; halako suertez non arrosaugarretik datorren. Berebat, irudia ideiatik dator. Leizeko lana jenioaren garunean egiten da. Ideia, poetarengan abstrakzioa izanik, lilura eta errealitate da poeman. Zenbaterainoko iluntasuna lur barrenekoa! Zelako maraztasuna azalean! Iluntasun hura barik ez zen horrelako ekinik izango azalean. Irudizko eta itzalezko landaretza horrek sustriak misterio guztietan dauzka. Loreak sakontasunaren frogarri dira.

Shakespearek, halako mailako poeta guztien antzera, nortasun erabatekoa du. Iru-dikatzeko era bere-berea du, sortzeko manera bere-berea, ekoizteko modu bere-berea. Irudimena, sormena, ekoizmena, hiru jazoera zentrokide, jenioarengan amalgamatuak. Jenioa da irradiazio horien jatorria. Irudimenak sortu egiten du, sormenak antolatzen, ekoizmenak gauzatzen. Ekoizmena bitarte dela, irudimena materiara sartzan da, mamia ematen dio, ukigarri eta ikusgarri egiten du, piura, soinua eta koloreak eransten dizkio, ahoa fabrikatzen dio berba egiteko, oinak ibiltzeko, eta hegoak haize gora hegan joate-

ko; behin esateko, ideia poetarengandik atekoa bilakatzen du, bateratsu, haren baitan dirauela, haren idiosinkrasiaren bitartez itsatsi-itsatsirik, sorkariak eta sortzaileak lotzen dituen zilborrestea.

Inspirazioaren fenomeno antzekoa da poeta handi guztientzat, baina garun sistemen askotarikotasunak barietate infinitua eransten dio.

Idea burmuinetik sortzen da: jatorria; ideia banako egiten da: gestazioa; banakoa gizaki egiten da: erditzea; gizakia ekintza eta grina egiten da: obra.

Idea banakoarengan, banakoa gizakiarengan, gizakia ekinen, horixe da fenomeno, bai Shakespearengan, bai Eskilorengan, bai Plautorengan, bai Cervantesengan, eta zehaztapen hau izan dezake laburpen: bizitza dramarengan.

Maisulanean dena jazotzen da gurata. Shakespearek halako gaia desira du eta ez besterik, Shakespearek halako argudioa gura du, Shakespearek halako pertsonaiak nahi ditu, Shakespearek halako pasioak desio ditu, Shakespearek halako filosofia du nahikunde, Shakespearek halako ekintza du gogo, Shakespearek halako estiloa du plazer, Shakespearek halako gizadia garo du. Sortu egiten du, gizadiaren eta berberaren antzekoa. Aurretik, Gizakia da, soslaiz, Shakespeare. Alda ezazue izena, jar ezazue Aristofanes, ipin ezazue Moliere, ezar ezazue Beaumarchais, formulak baliagarri irauko du.

Horrelako gizakiok originaltasunaren jabe dira, alegia, abiapuntu pertsonala dute dohain handi modura. Horra hor zergatik diren ahalguztidun. Virgiliok Homero du jatorri, begira ezazue zelán doazen endekatuz erreprodukzioak: Racinek Virgilio du jatorri, Voltairek Racine du jatorri, Marie Joseph

Chenier-ek Voltaire du abiapuntu, Luce de Lancival-ek Chenier du abiapuntu. Ezer ez da abiatzen Luce de Lancivalengandik. Ilargiz ilargi, desagertzeraingo heldu ohi da. Ez da engranaje arriskutsuagorik beheranzko aurreramenduarena baino. Horretara sartzen denak jai dauka. Ez dago horrenbestearainoko zapalkuntzarik sortuko duen xaflagilerik.

Esate batera: ikus ezazue Hector irteeran, Homerorengan; eta begizta ezazue Luce de Lancivalengan, helmugan.

Frantzia eskola klasikoa esan diote beheranzko aurrerapenari. Horra zergatik den halako kolorega literatura. 1804. urtearen inguruan literaturak eztulka ziharduen. Mendehonen hasieran, Waterloo amaitzen zen inperioarekin batera, literatura horrek adierazia zuen esankizun zuen guztia. Bikaintasuna garai hartan erdietsi zuen. Gure gurasoek haren apogeo, hau da, hiltamua ikusi zuten.

Espiritu originalak, poeta zuzen eta berezkoak, ez daude klorosi horrek jota. Imitazioaren zurbiltasun gaixotasunekoaren berririk ez dute. Haien zainetatik ez dabil inoren odolirik. Odola bere-berea dute. Sormena dute bizimodu. Sortzaile dira, bizirik daudenez gero. Arnasa hartu eta maisulan bat agertzen da.

Estiloa eta beraiek osotoro daude adiskidantza handian. Kritikari benetakoarentzat, kimikari izaten den aldetik, haien guztizkotasuna nabardurarik ñimiñoenean ere kondentsatzen da. Hitz hau Eskilo da, berba hura Juvenal dugu, ele hori Dante. *Lady Macbeth* osoa da hitz honetan, Shakespearerek hain berea duen berban, alegia, *Unsex*² elean. Ez da

ideia bakar bat ere poetarengan, orri batik ere ez zuhaitzean, harengan sustrairik ez duenik. Jatorria ez da ikusten, lurpean da, baina badago egon. Ideiak garunetik irteten du adierazita, hobeto esanda, hitzarekin amalgamaturik, aztergarri, baina zehatza, mendearen eta poetaren nahasketa, erraza itxuraz, konplexua benetan. Ideia bakoitzak, halako jatorri sakon batetik etorririk, berebarekin gauza bakarra eginda, bere mikrokosmosean poetaren sustantzia osoa biltzen du. Tanta bakarra ur guztia da. Halako moldez non estilo nabardura oro, edozein termino, zeinahi adierazpide, ezin lokuzio, zeingura adiera, garapen guztiak, eraikin denak, esamoldeak oro har eta, are puntuazioa bera ere, metafisikoak diren. Berba, esanda dugu, ideiarekin haragia da, eta haragi hori bizia da. Ideiari eleak kentzen badizkiozue, kritika eskola zaharrak muina eta forma bereizten zituen moduan, heriotzari bide emanen diozue. Heriotzan legez, ideia, hau da, arima, desagertzen da. Berbari egiten diozuen gerra ideiarekin aurkako guda da. Idazlerik gorenen bereizgarria idazlan baten estiloa da. Tzitoren moduko idazleek, Shakespeareren antzeko poetek, beren antolamendua, intuitzioa, pasioa, esperientzia, sufrimendua, ilusioa, patua, izatea, eta jaiotzetik datorkiena jartzen dituzte liburuetako lerro guztietan, poemetako suspirio denetan, drametako oihu orotan. Estiloan agertzen dira kontzientziaren erabaki behar premiatsuak, eta eginbeharraren parekide den zerbait erabatekoa. Idaztea egitea da: idazleak ekintza gauzatzen du. Ideia adierazia erantzukizun onartua da. Horra hor zergatik idazlea den ogi eta jaki

2 *Unsex* = Baten bati, batez ere emakumeari, haren sexuaren ezaugarriak kentzea.

bere estiloarekin. Ez du ezer uzten zoriaren meneko. Erantzukizunak elkartasuna dakar.

Xehetasuna estu-estukoa da osotasunarekiko eta berbera ere osotasun da. Halako berba malkoa da, bestea lorea, hura oinaztargia, bestelakoa simaurra. Eta malkoak erretzen du, eta loreak oldozten, eta oinaztargiak barre egiten, eta simaurrak argitzen. Gorenak eta satsak larrutan egiten dute, horren erakusgarri poema handi bat: Job. Maisulanak eraketa misterioitsu dira, eta infinitua edonondik darie. Harritzen zaituzten esamolde bat, hainbeste giza emozioen artean, hainbeste taupada benetakoren artean, bizi gaituen patetikotasunaren handian, ezezagunaren adierazpen ustekabekoa da. Estiloa aurretiko zer edo zer da. Beti zaio fidel haren espezieari. Idazleren osotasunetik sortzen da, ile sustraietatik bezainbeste haren adimenaren sakonetik. Estiloan beti izaten da jenio osoa: haren izate lurtarra eta izate kosmikoa, gizatasuna eta jainkotasuna, poeta eta profeta. Estiloa arima eta odola da: gizakiaren baitatik dator, organismoak maite egiten duen tokitik, estiloa erraiak dira.

Estiloa noraezekoa da, ezbairrik gabe, eta, orobat, ez dago ezer libreagorik. Horra hor haren harrigarria. Oztoporik ez, bortxarik ez, mugarik ez. Nahitaez egin behar irribarre errimaren zailtasunez entzuterakoan: zergatik ez aipatu sintaxiaren oztopoak ere? Sasiko zailtasun horiek mintzairaren forma beharrezkoak dira, nahiz bertsoan, nahiz prosan, beren buruaren jatorri baitira, aurreko konbinazio bagarik. Analogiak dituzte kanpoko munduan: oihartzuna naturaren errima da. Badakigu poetaren batek, nahiz eta bizialdi

osoan Richeleten prezepturik irakurri ez, haurtzaroan bertsoak konposatu zituela, hasieran, ezainak, hurrengoak, geroago eta akats gutxiagorekin, azkenik, zuzen-zuzenak idatzi arte, eta urratsez urrats, laguntzarik gabe, topatu dituela lege guztiak: etena, errima femenino alternoa; prosodia amaiturik jaiotza zaiola senez.

Estiloak kate bat du, idiosinkrasia, ares-tian aipagai erabili dugun zilborrestea, idazleari lotzen diona. Lokarri horretaz landa, bizi iturburu baita, libro dago. Aske-aske ibiltzen ditu gramatikaren alanbikak: esentziazko da, hastapena, idazlea bera, erantsia du, eta ez du atomo bat bera ere galtzen iragaz tresnetan, horietatik esaldi eginda irteten baitu prosarako edo bertso bihurturik bertsoarako. Erritmo bere-berea du, eta hura onartzen duen erritmo orokorraren beraren barnean inposatzen du. Horra zergatik den, ikuspegi absolutu batetik, estiloa halako malgutasun harrigarriaren jabe, dena har dezakeelako barne, sotiltasun garbientik guztien gaintiko lizunkeriaino, Petrarcarengandik Rabelaisenganaino. Batzuetan gizaki berarengan Petrarca eta Rabelais daude, estiloaren eskala Romeorengandik Falstaffenganaino heltzen da, tarte batean unibertsoa sartzen da, gizakiak, aingeruak, maitagarriak; hobia agertzen zaigu mutur batean langile bat duela eta bestean bisitaria, ehorzlea eta mamua; gauak, zinikoa izanik, bere musuaz bestelako zer edo zer erakusten digu, *buttock of the night* (gauaren ipurdia); sorgina tente jartzen da, Eumenide³ gizatxartua, ametsaren horma mengelean infernuko ikatzez marrazturiko karikatuta; eta mundu horri begira, mundu ho-

3 Orfeoren emaztea, ninfa eder bat. Suge batek orpoan zizt eginda hil zen. Orfeo infernuetara joan zen haren bila.

rrexek maitatua, aurretik gogoetan erabiliari beha, poeta mugagabea ari da begiratzen, entzuten, gaineratzen, negar egiten, iseka, maitatzen, ameslari. Eta, orain, itzul ezazue hori.

Borroka egin ezazue estilo horren kontra, adierazteko; pentsamendu horren aurka, erauzteko; filosofia horren aitzia, konprenitzeko, poesia horren kontrari, besarkatzeko; borondate horren aurrezka, men egiteko. Obeditzea, hara hor non dirdirutzen den itzultzailearen boterea. Brumoy, Bitaube, Artaud, Poinset de Sivry, Florian, ez dira obediente. Haien irakasleek baino gehiago dakite. Ergel hainbestekook jenioa baino arinagoak dira. Benetako itzultzailea, itzultzaile erabateko eta kalitatezkoa, azkarra bada, jatorrizkoaren jopu jarriko da, baita agintez jarri ere. Nagusigoa agerian jartzen da men egite guztien gainetik horretan. Itzultzaile bikainak poetari obeditzen dio ispiluak argiari legez, haren dirdira itzulita. Mirail bizi izatea: merezimendu bitxia, Voltairek hala bilatua Plauto aurrean eta Chateaubriandek Miltonen aurkez. Fideltasun handiagoak argitasun handiagoa sortzen du.

Komeni ote da bizi garen hemeretzigarren mendeko ordu honetan Frantziar Shakespeareri halako ispilua eskaintzerik? Itzulpen batean trinkotzerik su handi horretako irradiazio guztia? Argi gar hori gure literaturaren gainean proiektatzerik gure poeta jatorrizkoen ederrarekin batera? Goibelik gabeko hori frantziar argitan sartzerik, izpi hurkoa ez ezik, gaur egingarri ere baita oso? Haizu dute aurreiritziek? Halakoari bide emateko bezain ahul ote dago gure erretorika? Sendotu ote da aspaldiko oftalmia klasikoa? Ondo zabalik ote dira frantziar begiak? Gaina hartu al diete Ducis-i edo Le Tour-

neuer-i? Halako une bat heltzen da itzulpenarako non, erlijioetarako legez, egia absolutu izan daitekeen. Gustua suspertzen da filosofia bizkortu araura. Heldua ote da Shakespearerentzako aldiunea?

Halaxe iritzi dio egungo itzultzaileak. Asmatu duelakoan gara.

Gibel gogo gogo, eta neurri batean, itzulpen guztien alde gaude, erlijio guztien alde gauden moduan.

Erljioek eta itzulpenek, hasi bidez uste genezakeen baino elkarren antzekoagoak izanik, beti egoten dira sailez sail spirituen eboluzioarekin. Biak izan daitezke on edo txar egia osozkoa onartzen den arte, ertian bateko, filosofian besteko. Itzultzaileek, agerrazle diren aldetik, nahi beste hurbilpen jarriko dizuete eskura. Ez dute infinituaren gainean lan egiten, erlijio sortzailearen antzera, baina obra halakoarenaren baliokide da. Ikusten dutena, estudiatzen dutena, itzultzen dutena, ez da gizadiarengandik kanpokoa, herri jakin batengandik kanpokoa baino; ez da Espiritua, espiritu bat baino; ez da Hitza, hizkuntza bat baizik; ez da zerua, liburua da; ez da unibertsoa eta horren arima, Jainkoa; maisulana eta horren arima da, alegia, poeta.

Zeregin latza. Dezaketena egiten dute. Dena esaten ez badizuete, errudunago zarete zuek haiek baino. Poeta ez du publikoak egiten, baina publikoak itzultzailea egiten du. Itzultzaileek aitaita itzaltsua dute: Moises. Onar dezagun jazoera hori, eztabaidatua, historia osotoro onartzen dugun legez, hura ere eztabaidatzeko modukoa baita ia osagai guztietan. Moises agerrarazlea da bi espeziaren: Horeb-en Jainkoaren itzultzaile da, Biblian, Job-en itzultzaile. Hara, itzultzaile boteretsu hori ez da aske. Moises izan arren, eta Moises delako. Ezin eman diezaioke ju-

dutar herriari zeruaren, Jainkoaren, Satanasen adierazpide ausarta, Jobek irudikatu bezala. Moisesek, itzultzaileak, leuntzen, laburtzen eta moztzen du, arabiarrak badezake hebraitarra menturatzen ere ausartzen ez dena. Moisesek Job garbitu, aletu du. Itzultzailea, izan ere, inguruaren biktima da. Itzultzaileak lankidetzat du bizi duen garaia. Oso zabal ez diren adimenek sasiko itzulpenak behar dituzte, sasiko erlijioak beharrezko dituzten hein berean. Adimen nagusi eta guztiz garatuek testu osoa behar dute, erlijioan logosa oso-osorik behar duten legez. Isisek ez ditu gonak altxatzen umeak aurrean dituela. Helduak zaretenean, benetan nagusiak izatean, nor diren dakiten herriak izaterakoan dendena emango dizuete aditzera.

Gerta daiteke indar ikaragarritzko harako nazio hura, gerran, iraultzan, aurreramen-
duan lotsagabeki bikaina izan arren, literatura herabe izatea. Horrela jazo bitartean, haren parteetako bat hazi gabe egongo da. Zibilizazioari erramu boneta jartzen zaio adimen literario osoa eskuratuta. Gustua hazten denean, orduantxe bada, izan, herria.

Gustua sabel moduko bat da. Gaixotasun batzuk jaki fin eta goxotzat hartzen ditu. Gauza eztiak izan ditzake gogoko, *Juliaren girlanda*, *Petit C reme*, *B r nice*, are zozoke-riak ere. On Bernardo, Moncrif, Florian⁴. Noizbait gustuak oka egin zuen Shakespeare zela eta. Literaturarenganako higuin hori eragin zuten Boileau-k, hamazazpigarren mendean; eta hamazortzigarrenean, Voltairrek; oso ausarta bera Jesusen gainekoetan, oso diskretua Racinerekiko. Horrelako jan gogorik eza izanda, nahiz eta *gustu ona* esaten zio-

ten, Frantziak ezin zezakeen izan inongo poetaren itzulpengintza puru, oso eta esku-zabalik, ez Horaziorenik, ezta Virgiliorenik ere. *Ondo esana* eta *estilo gorena* deritzon gauza bat zegoen eta horretan jartzen zuten dena beratzen. Beratze hori beharrezkoa zen. Poesia ezin irents zitekeen urak lagunduta ez bazen. Urez, alegia, perifrasiz. Egia da, une hauetan ere, espiritu askorentzat Homero bera oraindik dosifikatu beharra dagoena.

Homerorenetan, Minervak Akile ileetatik hartzen du. Baitaubek honela ematen du:

«Jainkosak heroia-
ren ile adats horiari oratu zion».

Eta fede onez egiten du. Baitaubek ez daki Homerorengan irarrita, ederra zatarrak dela.

Popek ere edertzen du Homero. Hizlaria eredu hartzen du (*Iliadako* III. kantua), Andre Chenier-ek hain era miresgarrian eta librean itzulia:

«Haren ahotsa ugari jainkozko hitzetan
nola neguan elurra muino gainetan»

Popek ahapaldi atsegin hau erantsiko dio:

«Eroztzean urtu doaz, eta bihotzean barneratu»

Itzultzaile delikatuak ez dira eroso sentitzen antzinako poesia grekoarekin. Eskilok zorabiatzen ditu. Izan ere, behar besteko itsas zakarra dago horretarako. Itzulpengintzak goragaleak sentitzen ditu etengabe *Prometeo* edo *Orestia* lanetan. Botagura berretzen da Aristofanesen aurrean. Iliadako Harpalion, Merionen geziak zeharkatua, lurrean datza "sugearen antzo" narras; *madame Dacier*-ek uko egiten dio itzultzeari eta argiro adieraz-

4 Egun ia inork ezagutzen ez dituen obra eta egileak, antologietan ere ia aipatzen ez baitira.

ten du ezen horrek gure hizkuntzaren mugak gainditzen dituela. Anakreontek berak higuina sortzen dio. Lehoiaren gainean "ahutzak izugarri zabaltzea" esatea sinesgarri ote? $\chi\acute{o}\sigma\mu\prime\ \acute{o}\delta\acute{o}\nu\tau\omega\nu$. Madame Dacier-ek 'kemená' esanda itzultzen du eta badirudi haren aitzaki irribarrea orripeko oharrean agertzen dela: "Nago —dio— grekoari infidel izana barkatuko didatela". Bestalde, ohar hori errepika hutsa da. Behin eta berriro agertzen da erregimen zaharreko itzulpenetan. Etengabe irakurtzen da alboan: "Testuan dio: eta abar...". Bestela esanda: bide batez aditzera ematen dizuet ezen itzultzen ez duen itzultzaile naizela. Bitaubek harantzago doa *madame* Dacier baino. *Madame* Dacier azartzen da idazten (*Iliada*, XIX): "Agamenon jarlekutik elekatzen da zutitu gabe". "Zutitu gabe" lardatsa da; Bitaubek zuzenduko du: "urratsak batzar erdira zuzendu gabe". *Madame* Dacier ausartuko da honako hau idaztera (*Iliada*, XIX): "Agamenon jarlekutik mintzatuko da jaiki gabe". «Jaiki gabe» esakunca lardatsa da; Bitaubek aldatuko du: «oinak batzar erdirantz bideratu gabe». Homerok zera dio: «Palas mintzo», Bitaubek honela itzuliko: «Andreak ahots izugarri batez eranztungo dio». Teucroren geziak Clito joko du «atzealdetik». «Atzealdetik» gordina da, Bitaubek honela ordainduko du: «buruan jo du». Plutarkok dioenez, idi kalituaren larrua sendoagoa da berez hildako idiarena baino, horra hor zergatik adieraziko duen Homerok ezen Parisek kaskoa lotzeko erabili zuela uhal «idi kalituaren larruz egina». Xehadura horiek xarmangarri dira. Ez da hala gertatzen Bitauberentzat, honela emango du eta: «uhal sendoz». *Iliadako* XXI. kantuan, Junok, emeki, ahulezia balaku bihurtuta, Plu-

tarko guztiz harrিতuta utziko duela, Vulcanori esango dio: «nire herrentxo hori». Bitaubek esango du: «o, ene seme!». Poseidonek Apolori esango: «Laomeodontek zin egin zuen belarriak erauziko zizkigula». Bitaubek honela itzuliko du: «haren ezpatak utziko zigula ahalkeizunezko orbain ezabaezina». Aiantek Hektorri jaurtikitako harria eroriko da, eta Homerorenean lurrera jausiko da eta «zibaren antzera biraka hasiko». Zer egingo du Bitaubek? Honelaxe ordainduko: «arin-arin biratuko da». Homerok Escamandroren iturburu bikoitza, hotza eta beroa, erakutsiko digu, eta setioaren aurretik Troiako emakumeen arropa ikuztegi zenari, tira, bada!, Bitaubek, hitza hartuta, honelaxe esango dio: «nora, bake egun zorionekoetan, dama troiarrak eta haien alabak joaten baitziren, *preseekin* apain-apain, haien jantzi luxuzkoen garbikundea egitera». Homerok honela dio: «Apolo tontsura gabea». Hala da, Macrobiok itaun egingo du ea zein artaziz moztu litezkeen eguzki errainuak. Guraizeok Bitaubek edukiko ditu. Ezabatzen du tontsuratu gabe. Febo arradatuko du. Itzultzailea barberu da. Itzultzaile zentsore da. Horrela itzulirik, «arrain sakratua» bilakatuko da «jariakinezko inperioko biztanle». Txuxaga «azkon» bihurtuko da, aldaka alde «jainkoei eskainitako parteak». Beti ere Bitauberen iritziz.

Batzuetan, gustu zaporegabetasunak antzeko ondorioak izaten ditu. Ikus ezazue Racineren *Ifigenia*, itzulpena da eta. *Ifigenia* lanaren gaia ezinago txarra da. Aitak alaba hilko du haizea etor dadin. Heladeko jauntxo batek Troiako jauntxo bati gerra egingo dio; piragua sorta kaitxo batera bilduko ditu, Aulidera; itsasaldirako haizerik ez dabil, Eolo

idoloak ez du putzik egiten. Idoloari putzazari behar dio. Jauntxoak aztiari, Calcanteri egingo dio galde. Sorginak erantzungo: idoloak hire alaba jan nahi dik. Horra hor argudioa. Dena egia da berbarik berba: armada grekoaren erdia tatuaturik zegoen. Zer hoberik Homero basati zaharrarekin jarraitu baino (Euripidesez berak erdi kutsatua zuen): gaia eta pertsonaiak bat datoz. Epopeia odol egarri da. Ondo ditu bizi-bizian gauzaturiko lepo mozketak. Poemari harmonia izugarri halako bat dario. Badirudi aspaldiko krimen zentzugabearen eresi sakratua entzuten dela. Sortalde osoak du arrapostua Grezia odolezko horretan. Itzalen hondotik, Abraham, semea sakrifikatzen duen hura, alaba sakrifikatzen duenaren, Agamenonen, oihartzuna da. Idoloak ituna proposatzen du. Dena laburbilduko da neskatxa bati sabela ebaki eta bihotza, gibela eta birikak jainkoei eskaintzera eta erraietan begiratzera. Horren ostean, haizeñoa ibiliko da, Ifigeniak, harriturik eta otzan, onartu egingo du. Emakumeak ez zuen askorik esan gura izaten Kristo aurreko 1200. urtean. *Iliadako* XXIII. kantuko jokoetan lehenengo saria tripode bat izan zen, bigarrena, emakume bat. Ifigenia, etsimenezko eromen bete-betekoan, ohitura basatiek emakumea hala erabiltzen ohituta, lepoa makurturik, zain dago bi eskuk, haietako bat labana daukala, noiz oratuko dioten, Eskilok dioenez, «ahuntzari legez». Ezer ere ez hori baino bortxa handiagorik, deus ere ez hori baino, logikaz, beldurgarriagorik, bat ere ez handiagorik izugarritasunean. Bestalde, inongo desitxurutzerik ez da. Argudio ohila, pertsonaia basak. Auzia lehoi artean jazotzen da. Orain, argudio barbaro horrekin, egizue tragedia fin bat. Bestela esanda: ahantz ezazue gustua. Berba eragin iezaiezue arlote grezia-

rei gorteko berbeta leunean. Jar ezazue poesia dotorea poesia primitiboaren orde. Homerorenean dioten moduan, «ardo zahagi», «txakur begi», «orein bihotz» esan beharrean, «jaun hori» esan dezatela, izan bedi Akile markesa, esan bieziaiote Ifigenia ahuntz zorigaitzeko horri «Andre hori» eta «printzesa gurgarri», disonantzia izutzekoa egingo da, pertsonaien eta ekintzaren arteko aldeak kirioak piztuko ditu, interesa galduko da fedeaz batera, berdin gertatuko balitzateke berorren maiestate Luis XIV.ak Parisko artzapezpikuari eskatuko balio *Mademoiselle* Bloisekoari zintzurra mozteko zertarako eta aldeko haizez joateko haren gorentasun Tolosako Kontea, Anvilleko duke eta pare, Parisko Parlamentuak Frantziako almirante izendatua; Grezian berealdikoa zena, zentzugabekeria hutsa bilakatuko da Versaillesen. Zergatik?, itzultzaileak gustuaren gakoa aldatu duelako. Gustua proportzioa da.

Nork du errua?, Racinek? Ez, izan ere. Racinek, zuzeneko behatzea eta zirkunstantzi poesia salbuespen direla, ondo merezia du XVII. mendean irabazi duen erronka, eta erresuma tragediaz hornitzea kontua denean, ezbaierik gabe, Le Nôtre, Mansard eta Lebrun apaintzaile bikainen gisara agertzen da, asmamen txikiagoaren jabe, baina sentimendu apur bat gehiagoren eta antz-antzeko estiloaren jabe. Akatsa garaiarena zen: mende sofistikatu batzuek gauza eta obra handiak gaitzetsi dituzte. Gutxi ulertzen dute bikaintasuna, eta are gutxiago bakuntasuna. Luis XIV.a honela mintzo zen Teniersen gainean: «Eraman itzazue zirriborro txingote horiek!», Homerori gordin zeritzon, eta Feneloni honela esaten zion: «Cambrayko jauna, ezin duzue Homero apailatu Borgoinako dukearentzako egokiago izan dadin?». Fenelon

esatea zuen, Euklidesek Ptolomeori legez —geometria errazago egiteko eskatzen zion eta—: «Ez dago errege-erreginentzako sarre-
ra pribaturik».

Esan berri dugunez, «armada grekoaren erdia tatuaturik zegoen», eta badakigu bai-
pen hori eztabaidatzeko dena. Aditu mun-
tadunek hala uste dute. Ez da ahaztu behar
ezen Homero bizi izan zela kontakizunaren
gai diren gertaeretatik hirurehun urtera. Ta-
tuaia ez du aipatzen, baina, sarri ere sarri,
«tokian tokiko fiabardurak» enplegatu zituen.
Horrela, zalditeria, Homeroren garaian
arrunta izan arren, ez zuten ezagun Akileren
sasoiari: Homerok ez du *Iliadan* zalditeriarik
aipatzen; soldaduak oinez borrokatzen dira,
heroiak, gurdiz.

Iliada legenda da, eta Homero, legenda-
ria. Guztiarekin ere, guk Homerorengan
sinesten dugu, eta Homero bakarrean, gai-
nean. Zein garaitan bizi izan zen? Ez dugu
uste, hala esan badute ere, Tikio larrugina-
ren garaikide izango zenik, Aianteren ezku-
tua dela bide halakoaren gainean berba egi-
ten duen arren. Herodoto, Homerori orpoz
orpo jarraikitzen zitzaioa, gu baino jakitu-
nago egongo bide zen. Herodotok dioenez,
Homerok, gaztetan, Mentor zaharraren eza-
gumenak izan zituen, eta hark, gaztaroan
Ulises zaharra ezagutu zuen. Mende beteko
bizialdia izanik, garai haietan sarritan lekuko-
tzaz egiaztatua, Troia osteko hirurehun ur-
teak beteko ziren, arestian esan dugun legez.
Iliadako borrokalarrien tauaiatz den bezainba-
tean, armada grekoan egiaztatua ahal izan da
Peoloponesotik Kapadoziara errari zebilen
kaukotar herri nomadarengan; eta Troiar ar-
madakoena, hipemolgotarrengan, eszitiar
herri behor esnearen edalerengan. Traziarrak
tatuatu egiten dira, baita misiotarrak ere.

Basatasuna nonahi agertzen da poema augus-
tu horietan. Itsasontzien aingurak harri
hutsak ziren, Sandwich uhartetan duela
chun urte bezala. Zauria osatzeko, habaila
lotzen zioten gainean; Agenorrek hala osatu
zuen Helenoren zauria, eta halaxe jokatzeko
dute egun *botocudo* deritzen brasildarrek.
Iru-
dika ezazue honako eraikin hau: hormak izei
enborrak, azal zerrendez lotuak; sabaitzat ihi
ehundura; inguruan, lur zerrenda estua, zu-
resi puntazorrotzek babestua; zer da hori?
Senegaleko *Toucouleur* leinuko buruzagi ba-
ten etxola. Bai, horrelakoxea da Akileren
denda ere. Zuresiak habe batek itxitako atea
zeukan, eta habea hiru gizonen batera edo
Akilek berak besterik ezin zuten kendu. Jo-
koetan, heroien borrokak ankerrak ziren,
Ulisesek hankalatraba egingo dio Aianteri.
Akileri dagokionez, goizero, hamabi egunean,
Hektorren gorpua oinetatik tarras eroango
du Patrokloren hilobiaren inguruan. Kali-
makok dioenez, tesaliarren ekandua da. Aki-
lek Patrokloren hilobiaren gainean gatibu di-
tuen troiarretan ederrenei lepo egingo die,
gazteak eta guriak aukeraturik, Karibeko *sachem*
horietako bat balitz legez. Gero, Pirrok
Polixenori lepora egingo dio Akileren hila-
biaren gainean. Akilek atxilotuak salduko
ditu, alegia, Priamorenen hainbat seme-alaba,
Lemnoseko azokara bidaliko ditu. Akilek gu-
txi faltako du Hektorri ausiki egiteko; Po-
pek dioenez, gogoz geratuko da. Hekubak
ere gustura erantsiko zion hagina. Ikus eza-
zue XXIV. kantua. Priamori dagokionez,
Akile beratuko da, baina beratasa basa izan-
go da, eta sano kezkarria; bat-batean atxi-
lo direnei garrasi egingo die Hektorren gor-
pua Priamorenen begietatik ostentzeko, agureak
lar negar eginez gero, Akilek berak hura aka-
batu besterik ez luke-eta edukiko. Tarte lu-

zeegia, beraz, Akile horrengandik Versaillesko Akilerengana. Mende Handiaren⁵ defen- datzaileek, honaino ezker, ikusaraziko di- gute Mende Handi hark ere une bihotz ga- beak izan dituela. Bihotz gabetasunarena onartzen dut. Baina bitez konforma amore emate horrekin. Azal nadin: bihotz gabea bai, ankerra ez. Basatia anker da, zibilizatua bi- hotz gabea. Ez da esaten «animalia bihotz gabea». Bihotz gabetasunean arima eta eme- tasuna ere badira. Nābardura batek jabea- raziko gaitu basatasunaren *ankerkeriaz*, eta ze- nen bihotz gabea den landutakoa. Bihotz gabetasuna basatasun zizelatua da. Finezia. Homerorenean, Biblian legez, «haurrak ha- rriaren kontra egiten dituzte zapal-zapal». Arteen mendean, Luis XIV.aren, «burrun- tzian josten dituzte». Aurreramendua deri- tzote horri. Esan berri dugu bihotz gabetas- una sotila dela. Dotoreziaraino ere hel dai- teke. Entzun iezaiozue Madame de Sevigne- ri: «(Les Rochers, 1767.eko urtarrilaren 5ean, igandean)... gure soldaduei doakienez, fran- tziskotar balira irabazle ginateke, asaltoetan dibertitu egiten dira: lehengo batean seintxo bat erre zuten burruntzian. Baina ez dugu bestelako istiluren albisterik». Seinak burrun- tzian, *istiluak!*, zelako kortesia gain-gainekoa! Pedro I.a Errusiakoak honela dio: «gurpilak bete ziren haren semearen lagunen soin ada- rrez, haren koinatu Laprechin Kondeari be- rari lepoa mozteko agindu zien, Alexis prin- tzearen osaba izanda ere. Printzearen aitore- leri ere moztu zioten zintzurra. *Moscovia* zibilizatu bada, onartu beharra dago ezen zibilizatzeko horrek garesti irten diola». Mende

Handiaren aldekoak pertseberatzen dute. La- rregi handitzen dugu Homeroren eta Raci- neren bateraezintasuna. Homerotar ekanduen eta Idi Begiaren⁶ ohituren arteko aldeak ez dira dioten bezain agerikoak. Analogia bat baino gehiago dago. Horrela, Menesteo eta Ankilaoren harremana, Sarpedon eta Trasi- melorena, Polidamante eta Klitorena, Aiante eta Likofron Ziterakoarena, Diomedes eta Es- tenelorena, Akile eta Patroklorene, ez da des- berdintzen erregearen anaia *Monsieur* eta Lo- renako Zaldunaren artean dagoen hartu-ema- netik. Azken buruan, gauza bera da. Barka- tu, Patroklok ez du Briseida pozoituko.

Osterantzean, erdi-itzultzaileak abiarazle onak dira. Ikusmena apurka-apurka ohiara- ziz doaz. Ilunabarreko nabardura guztiek eguna sortzen dute. Pixkanaka, horra hor itzulpenen legea. Kastadun poetak ezin dira bat-batean sarrarazi haien sorleku ez den nazio baten espiritura. Zuhur da hasieran soslaiz sarraraztea. Publikoak eraldaketa bat- zuen ondorioz onartu ohi ditu. Baten batek zangarte bakarrean Boileuren gustutik Es- kiloren talentura igaro gura badu, molokot egingo du. Basati jokatu du, errezelik ga- beko gelara bet-betan sartzen den eguzkia- ren antzera. «Ai, Jauna —idatzi zion Joux markesak bere anaia Breveko zaldunari— zeinen izugarria goizeko eguzki hori!, zelako begirune gutxirekin iratzarri nauen!, ezaina bai ezaina!». Irakurlea, bera ere, begiko ninia bezalakoa da, beharbada, miopea, menturaz, presbiziaduna, samintzen erraza. Argitara ohitzeko, behar-beharrezko dira idazle ezi- nago bikainak, beti argiak eta zuzenekoak,

5 Luis XIV.aren garaia.

6 Versailles jauregiko gela bat, itxura horretako leiho batek argiztatua, gortesauak erregearen zain egoteko lekua.

elkarren atzeko ararteko gero eta gardenagoak izango direnak. Apurka-apurka, urratsez urrats, itzulpenen modelatua jatorrizkoetara egokitzen da. Hau oso hegoaldekoa da, hura, oso iparrekoa; gure alde epelak, gure sasoi arteko gustu literarioak ez ditu ametitzen, hasi bidez, espiritu osoak, poesia uni-bertsalaren hazi sortzaile indartsuak. Adibidez: Ezekielek Yahveh-Shamash hiriaren erdian tenplua eraiki zuen; han ez zuen errege-erreginen hilobirik onartu. «Beude hemendik at errege-erreginen hezurdurak!» egin zuen oihu. «Hilotzak» berba mesprezatzaila da. Lehenengo itzultzaileak, Luisen Mende Handikoa eta mundu dotorekoa izanda, «sarraskiak» eman zituen. Bigarren itzultzaileak, Genoakoak, gehiago arriskatu eta «hezurrak» jarri zuen. Hirugarren itzultzaile bat azartu zen «hezurtza» ordaintzen. Laugarren itzultzailea agertzeko bidea prest dago, Ezekielen pentsamendu osoa artikula dezake, errege zendu horiei gizatasuna kendu, hilotatik aterata degradatu eta «Beude hemendik at errege-erreginen hezurdurak!» esan dezake. Eskeletoa gizakiarena da, hezurdura animaliaarena. Ezekiel horrek, atzapardun profeta horrek, bere kobazuloan errege-erreginak klaskatzen ditu, eta ahoratu dituen gero, ederto daki zertaz diharduen.

Kikerok historiaz adierazitakoa itzulpenaz ere esan daiteke: «*Quoquo modo scripta placet*» [«Nolanahi idatzita ere, atsegina sortzen du»]. Gure eroapenak ez du inolako itzultzailearik baztertzeko, ezta, inozo-inozo, ia parodiagileak diren horiek ere. Haiak ere beren burubidea dute. Imintzioak aurpegiera iragartzen du, kisku leun horiek, azkenean, mintzo den aho moduan modelatuko dira. Arlotekeriak bikaintasuna desitxuratzen du haren gainean jarriz gero, jakina, baina ira-

garri egingo ere du. Errebelazioaren hasiera da. Jakitun zaudete ezen ia gardentasunik gabeko opakotasun horren ostean norbait dagoela. Massieu Pindarorengandik dator; Lefranc de Pompignan Eskilorengandik; Toureil Demostenesengandik; Larcher Herodotorengandik; Longepierre Teokritorengandik; Bergier Hesiodorengandik; Levesque Tuzidizesengandik; Denfontasines Virgilio-rengandik; la Bletterie Tazitorengandik; Guerin Tito Liviorengandik, Tarteron Juvenalengandik; Bauzee Salustiorengandik; du Ryer Zizeronengandik; des Coutures Lukrezio-rengandik; Amelot de la Houssaye Machiavellirengandik; Artaud Danterengandik; Macpherson Ossiannengandik; Dupre de Saint-Maur Miltonengandik; Filleau de Saint-Martin Cervantesengandik; Guedeville Plautorengandik; Lemonnier Terentzio-rengandik; Poinset de Sivry Aristofanesengandik; Grou Platonengandik; Brumoy Sofoklesengandik; Le Tourneur Shakespearengandik; gutxi gorabehera, gizakia bera tximuarengandik datorren legez.

Induljentzia, eskuzabaltasuna eta are adorea ere zor dizkiegu saiakera horiei guztiei; behin eta berriro ahaleginduta, gustua zuzendu daiteke; prestakuntza emaitzarenako harmailak dira; abortu horiek, azkenean, argia ikustera heltzen dira; halako egun bat heltzen da non erabateko itzultzailea agertzen den.

Aurreko abortu horiei dagokienez, haietan ezerk ez du harrimenik sortzen. Itzulpen-gintza eginkizun latza da. Itzultzailearen eta itzulitako idazlearen arteko borroka ia beti neurritik kanpoko da. Gorpuzkera ezberdinen arteko buruz burukoa da. Haietako bat, normalean, talentua baino ez da, bestea, ordea, jenioa izan ohi da. Horixe gertatzen da

Delille Virgilioren aurka jarrita. Delille, izen onaren jabea izanik, halere, Virgilioren familiako poeta da. Sasikumeeen adarrekoa. Musa erretoriko sasikoak Virgilio baso barru-barruan topatu zuen, eta bortxatu egin zuen, eta harengandik kume guztiak sortu ziren: Estazio, Klaudio, Pope, Dryden, Gray, Gessner, Saint-Lambert, Roucher, Lermierre, Esmenard, Delille. Racine ere familia horretakoa da, baina adar hobe batetik dator.

Normalean hizkuntzen muina bera agertzen da uzkur, beste batzuetan, azala. Batzuetan Hiztegia kupera jartzen da. Hiztegiak, adibidez, «*vafrities* ez da latina» diosku. Hara, Valerio Maximok berba horixe zerabilen maltzurkeria adierazteko. Latinezko hiztegi guztietan *Induperator* eleak «behe latina» adabakia erantsita dakar. Zabal ezazue Lukrezio, idazlea handia handien artean. *Induperator* hitza ahapaldi bikainetan aurkituko duzue.

Txirriporroren behe latin hori poeten latin ona da. Hizkuntzaren muinari dagokionez, erresistentzia askoz ere zailagoa izaten da. Espainolezko *ser* eta *estar* ezin dira argiro eman. Izanak «berezko izatea» adierazten du, egonak «gertakizuna», bi ekintzak emateko *être* baino ez dugu. *Mucho* interjekzioa, askoz ere itzultzen gaitzago da (*¿El rey se ha marchado? Mucho?*⁷. *Le roi est parti? Beau-coup*). Frantsesezko *baron* berbak ez du, dagoeneko, espainolezko *varón* hitza itzultzen, honek jauna eta heroia adierak gorde ditu-

eta. *Varón* hitza, espainolez, hurbilago da *vir* eletik *baron* berbatik baino. Persioren *Cum bene dicinto* bertsoan *ozyma* hitzak «lotsariak esatea» adierazten ez badu, «tripaki platerkada» esan nahiko du. Eta gero, ikustekoa da adieren ugaria. Adierak nahas-mahas hutsa dira. Itzul ezazue, ahal izanez gero, *Virginibus bacchata*⁸ *Lacoenis* deritzona. Itzul ezazue *Uxorius amnis*⁹. Latinez, aitak semearengan abdikatzen du Suetoniok zioenez, *Augustus Agrippam abdicavit*; surik hartu gura ez duen erramuak suarengandik abdikatzen du; Pliniok dioenez: *laurus manifesto abdicat ignes crepitu*; beste ibaiadar batetik bereizten den ibaiadarrak harengandik abdikatzen du: *Amnem Eurotam brevi spatio portatum abdicat*. Beste adierazpide batzuk kuzkurtu antzera daude: luzatuz gero, ahuldu egingo dituzue. Virgiliok honela dio: *A vulnere recens* ['zauri batetik berritua']. Florok honela: *Nuper a selva elephantum*¹⁰. Ken iezaiozue indarra eta dohainaz gabetuko duzue. Behin edo beste, hitz bakarra itzultzeko esaldi oso bat erabili behar izaten da. Jupiterren tenpluan gaua ematea, han etzanda loak bere baiatara orakulu bat bil dezan, horra ideia multzo konplexu bat, Plautok hitz hauetara ekarria: *Incubare Juvu*. Borroka egin ezazue, orain, trinkotasun horren aurka. Itzul ezazue bere trinkoan Paul Jovek behinola Calcondilas zela-eta esandako *aridus atque jejunus* ['zimela eta baraua']. Ba ote da gauza erakargarriagorik prosa barau hura baino? Calcondilas idazle zuhurra zen. Gozakaizta-

7 Jatorrizkoan, gaztelaniaz.

8 *Bacchata* berbak, latinez, «zapaldua» edo «Bakoren jaiak» adieraz dezake.

9 «Bere emakumeari gehiegi lerraturiko ibaia».

10 Hugok buruz aipatua, jatorrizkoan *elephantum* beste toki batean agertzen da.

suna tisiraino luzatzen zuen. Estiloa sori edukiaren edukiaz, ideia bera flakatzera heltzen zen. Hori dena dago *jejunus* berbaren barruan. Itzul ezazue *reparabilis absonat echo*¹¹, Persiok aipaturiko Neronen lau ahapaldi bixi horietan. Itzul itzazue elipsiak, batzuetan elipsi bakunak, Racineren ahapaldi ederraren antzera: *je t'amaís inconstant, qu'eussé-je fait fidèle?* [«aldartekakoa nintzela maite bazintudan, zer ez nukeen egingo fidel izanda?»], bestetan metaforaren elipsi zailak, esaterako Saint-Simonen: *on le bombardá mestre de camp* [‘zelai mariskal gisa jaurtiki zuten’].

Itzultzailearen eta egilearen arteko harremana, esanda dugu, gutxiagotasunekoa da. Gehienetan egia da. Halere, salbuespenik bada. Batzuetan itzultzailea gauza da. Moises Jobekin. Newton Apokalipsiarekin. Moliere lehenengo mailako indarra da Plautorekiko. Chateaubriandek neurria har diezaiokete Miltoni. Jean-Jacques Rousseauk, Tazitorenkin erratu arren, ez du toki txarrean uzten. Cornielle David baino gutxiago da, baina La Fontainek Esopo gaintitzen du. Bestalde, Cornielle, salmoen itzultzailea, Cornielle izaten da are barregarria denean ere. Bestalde, La Fontainek hain kopiatzen dio ondo Esopori, non ezabatu egiten duen. Horixe da legea horrelako kasu berezian: lapurretan egiten baduzue, ez lekukorik utzi. Lapurtutakoa asasinatzeak delitua larritzen du gizartearen legean, baina delitua ezabatzen du justizia literarioan. Amiotek Plutarkori ez dio osten edo bitzta kentzen, itxuraldarazten du, eta sotilaren sotilez, bakun egiten du. Lehenengo mailako gizakiarengandik bigarren

mailako gizakiarenganako tartea gaintituta, La Mennais, adimen sendo eta indartsuaren jabe, Danterengana disonantziarik gabe hurbiltzen da. Horaziok, beti bezain zorioneko dela, Jules Janin topatu berri du, Horazio bezain espiritu liluragarriko laguna, Horazio baino bihotz zabalagokoa.

Itzultzaileak zibilizaziogileak dira. Herrien arteko zubi dira. Giza espiritua pertsonatik pertsonara daroate. Gogoeta trukearen otsein dira. Haiei esker nazio baten jenioak beste nazio baten jenioari bisita egingo dio. Buruz buruko ernalgarriak. Pentsamenduak odolak bezain beharrezko du nahasketa.

Itzultzaileon beste eginkizun bat: hizkuntzak elkarren gainean jartzea, eta, noiz edo noiz, ahaleginari esker, hitzen zentzua atzerriko adieretarako prestatuta eta moldatuta, hizkuntzaren malgutasuna areagotzea. Hizkuntz tenkatze horrek, tarratekorik egiten ez badu, hizkuntza garatu eta handitzen du.

Giza espiritua hizkuntza guztiak baino handiagoa da. Hizkuntza denek ez dute neurri berean adierazten. Bakoitzak itsaso horretatik ura bere ahalmenaren arabera ateratzen du. Guztietan dago, gardenago edo uherrago. Dialektoek pegarraz jasotzen dute. Idazle handiek infinitu gehiago eskuratzen dute. Horra hor, batzuetan, ulergaitzaren jatorria; hona hemen, besteetan, itzulgaitzaren sorlekua. *Sunt lacrymae rerum* tanta da mugagabetasunean. Esakune hori sakontasuna bera da. Une horretan, Virgilio jartzen da Danteren parean edo, beharbada, gaintik.

Esaldi hori, beste ezein baino, ezin erakar daiteke itzulpenera, eta hala da haren bikaintasun zehatza zio dela, antzinako fatalis-

11 «Oihartzunak berriztagarri erantzuten du»

moaren eta egungo melankoliaren sintesiak eratua baita... eta gertaera izugarri iruditzen zaie arazo zabal horien gainean gogoeta egiten ez dutenei: esaldiak ez du inolako zentzurik frantsesera hitzez hitz itzulita. Inongo emakumek ez du ulertuko «gauzek ere negar egiten dute», baina emakume orok bere kautan *Sunt lacrymae rerum* daroa.

Auzi filologikoa ez da auzi metafisikoaren desberdina. Itzultzaileek horren gainean argi handia egiten dute. Ez da ikerketa filosofiko harrigarriagorik eta erabilgarriagorik hizkuntzen gainjartze hori baino. Hizkuntzak ez dira doitzen, ez dute eraketa bera. Giza espirituan ez dituzte muga berberak. Espiritu horrek gainez egiten die, haren barnean daude, hainbat norabidetara jotzen duten gailurrekin. Mintzaira bat geratzen den tokian, besteak aurrera egiten du. Batean esaten dena, bestean da falta. Hizkuntza guztietatik haratago, adierazi gabekoa igartzen da, eta adierazi gabekotik harantzago, adierazi ezinezkoa.

Itzultzaileak beti haztatzen ditu adierak eta baliokidetzak. Ez dago balantza orekatuagorik sinonimoak parekatzen dituen baina. Ideiaren eta hitzaren lotura estua agerian giza hizkuntzen konparazioetan jartzen da. Eta hortxe agertzen da, bere umekeria, fondoaren eta formaren arteko bereizketa ospetsua, duela hogeita hamar urte korrante kritikiko baten oinarri izan arren, egun ia bertan behera lagata badago ere. Fondoa eta forma hain daude elkartuta non forma aldatuz gero, fondoa lausotuko den. Horren adibidetzat ikusi dugu *Sunt lacrymae rerum* hura. Pentsamendurik falta dela esango dugu? Inoiz ez zen pentsamendu goragorik izan. Horre-

lakoetan pentsamendua ez da diluitzen, berezkotasuna galtzen baino, ideia bestelakotuko da estu-estu hitzez hitz itzuliz gero. Itzul ezazue frantsesera elez ele *Plenus rimarum sum hac atque illac perfluo*¹², ideia bidean itxuraldatuko da; latinez, zuen gustuaren araura, indiskreziio barregarria edo inspirazio lirikoa izango da; frantsesez, ultzerez beteriko legendun baten izerdi herratua. Hizkuntza guztiak halako esangura kopuru baten jabe dira. Hau dauka eta ez bestea. Suposatu sakon hori esakune arin baten pean gordetzen da: halako hizkuntza aberatsa da, bestea urria. Idazleek hitzak sortzen dituzte, herriari lokuzioak darizkio; herria eta poeta lankide dira. Homero eta la Halle metafora norgehiagoka ari dira. Shakespeare John Bull¹³-ekin lehiatzen da ausardian, hutsal edo bikain.

Baina, edozer eginda ere, ezin ora diczaio-kete giza espiritu osoari eta guzti-guztia hizkuntzari eman. Osotasuna Hitzarena baino ez da. Horretan giza espiritua eta jainko espiritua antzekoak direla ikusten da. Pentsamendua mugagabea da. Mugagabea adieraztea ezinezkoa da. Horrelako gehiegikeriaren aurrean, hizkuntza guztiak totelka hasten dira. Denek zer edo zer erooten dute. Bildutako txataltxo horiek guztiek, zati itsatsi horiek denek giza ezagumena eta pentsamendu unibertsala eratzen dituzte. Hizkuntza hilen ostean biziak datoz, lan berean ekin eta ekin, giza espirituari giza hitzean gero eta sarbide handiagoa ematen ahalegintzen. Berbetak norgehiagoka huts dira.

Itzulpengintzaren zailtasun handia horrexek azaltzen du. Hizkuntzen idiotismoak,

12 "Zirrikiz betetik nago eta han-hemen iragazkor naiz".

13 Ingalaterrako bitarteko klase gorabideko eta nazionalistaren pertsonifikazioa.

idazleen idiosinkrasiak. Idazleak itzultzaileari ezin konta ahala oztopo jartzen dizkio. Itzulpen ona, era batera, elkar hartze adeitsua eta borrokarik odoltsuena da.

Nori egin behar diogu aurre? Horaziori? Hezkaitza esamoldearen beraren gazta da: *o matre pulchra filia pulchrior* [«O, haren ama ederra baino ederrago den alaba eder hori»]. Lukreziori? Espirituaren garaitasun antzemangaitza: *nihilum fertus minus ad vada leti* [«otoitzek ez dute salbatuko Herio uharrietan topatzetik»]. Katulori? Halako indar bat, bere xarmari lotua: *funestet sese suosque* [«bere buruari eta hurkoei zoritxarra dakarkie»]. 'Galtzea' motzagoa da, 'zoritxarra ekartzea' egokiagoa. Lukanori? Laburtasun indartsua da: *si cives, huc usque licet*¹⁴. Tibulori? Errealitatearen emetasuna da: *in uno corpore servato retituisse duos* [«baten bizitza salbatuta, biak berreskuratzea»]. Senekari? Batzuetan haren adieraziak gorentasunerainoko lurruntsu dira: *aperto aethere innocuus errat*. Ez 'zeru zabal' esanak ez eta 'aire zabal' adierazpideak ere ez dute *aperto aethere* hori egokiro ordaintzen. Pertsiori? Iluntasunaren gardena da: *nescio quod certe est, quod me tibi temperat astrum*¹⁵. Juvenali? Gogoeta asegabe handiz beteriko bertsoaren maiestate harrigarria da: *Fumosos Equitum cum Dictadore Magistros*¹⁶. Horri gaineratu behar zaio idazle bakoitza bere enigmaren jabe izatea: garairen enigma, idazlearen beraren enigma. Prezio horixe ordaindu behar da idazle bereziarekin gertuko harremana izatearen truke; eta, sarritan, enig-

mak gordean dirau. Orduan, eta ez da gertaera bakana, itzultzaileak ez du idazlearenganako sarbiderik izaten; ezin du zabaldu, giltza falta du, eta Terentzioren *Andriana* idazlaneko jopuaren antzera, «*Davus sum, non aedipus*» [Davo (esklaboa) naiz eta ez Edipo (iragarle)] esan besterik ez du izango.

Gehitu iezazkiezue barne zailtasunei kanpoko eragozpenak; lot iezazkiezue hizkuntz oztopoei, idazlearen oztopoei, itzultzailea inguratzen duten zailtasunak, unean uneko aurreiritziak, nazio ezinikusiak, erretoriketik zabalduetako gaixotasunak, eskrupuluak, fidagaiztasuna, lotsa ergelak, probintzianoen gustu on betierekoaren aurkako itxurakeriaren uzurtasuna. Nola aterako zinatekete garaile, adibidez, Plautoren esaldi hau itzulita: *Potavi, atque acubui scortum* [«Mozkortu eta emagaldu batekin etzan nintzen»? Zelan irtengo zenukete irabazle Horazioren *Tum quantum displosa potest vesica, pepedi?*¹⁷. Kontuz, batez ere Frantzian. Gu, frantsesak, damatxo nazioa gara. Gure barnetegian zuhur izan beharra dago. Berriki Cambronne kanpora egotzi dute¹⁸.

Eta ohartarazi behar dizuet ez zuela lapurretarik egin.

Gauza serio-serio bat hitzik zakarrenarekin esateko modua topatu zuen. Ahozikinak historia artega jartzen zuenez gero, kale gorriara bota dute. Ondo egina.

Horren ostean, haren esana egokiago bihurtzeko, itzultzailea izendatu diote: Rougemont jauna.

14 «Herritar gisa, honaino heltzea baino ez duzue zilegi».

15 «Egia esan, ez zekinat zein astrok nauen hiri loturik».

16 «Zalditeriako jeneralak, kez beteak, diktadore batekin».

17 Jatorrizkoa eta aipua ez datoz guztiz bat, «puxika lehertzerakoan ateratzen duen hots halako batez uzker egin nuen».

18 Frantsesez « le mot de Cambrone » kaka (« merde! ») esateko eufemismoa da.

Rougemont jaunak, *Zaingoa hil egiten da, baina errenditu ez lanaren egileak, zerbitzu publikoan iraun eta printzeentzako bestelako esaldiak ere sortu zituen, besteak beste, Troka-derokoa: «Konpainia onean hilko nintzen»¹⁹. On Bitaube de Cambronne jaunak sabel zorro eta asmamen ederrak zituen. Hari esan zion, harriturik, handik zebilen batek: «Ene, Rougemont jauna, zelako totolo dagoen berorri! Baina gantza ondo irabazia du!».*

Idazle handiek hizkuntza aberasten dute, itzultzaile onek hizkuntzaren pobretzea atzeratzen dute.

Hizkuntzen txirotzea ikertu beharreko gertaera metafisiko deigarria da.

Berbeta bat ez da desagertzen ez bada beste bat sortuta; batzuetan, asko ere sor ditzake. Agonia horrekin haurdunaldia nahasten da. Intsektu batzuentzat, heriotza apusua da. Hizkuntzekin berdin jazotzen da.

Hizkuntzen heriotza hasi ohi da horiei gardentasuna kentzen dien mintzairaren loditze halako batez. Hitzek opakotasuna irabazten dute, eta, ber neurrian, ahoskatzea dorpe bihurtzen da, eta silaben arteko harremanak aldatzen. Loditze horren jatorria denboraren joana da, hizkuntza zaharraren zaharrez zauritzen baitu, eta ez, arinegi dioten moduan, ideia berriak erakartzea. Ideia berriak, gazteak direnez gero, osasuntsuak dira, hizkuntzari indarra ematen diote, eta, zapuztu beharrean, irauten laguntzen diote, are, batzuetan, salbatu ere. Edozertara ere, hizkuntza desagertzea halabeharrezko denean, gizentasuna handitzen da; iluntasunak hizkuntzaren alde batzuk aldatzen ditu, hizkuntzaren logika mudatzen da, analogiak ezaba-

tzen dira, hitzetako etimologiak ez dira gardentzen, ortografia zital batek erro ezeztazinei eraso egiten die, erabilera txarrek mintzairaren muin aspaldikoaren hondarrei tratu txarra ematen diete. Agonia dator: hasieran bokaleak hilko dira; kontsonanteek iraun egingo dute. Kontsonanteak eleen hezurdu-ra dira. Geroago, etimologia ezagutzen lagunduko dute. Kontsonanteen bitartez hitza ezagutzen da animaliak hezurren bitartez bezala. Hezurdu aski da hitza edo animalia berrosatzeko.

Hizkuntza kondentatua gero eta gutxiago erabiltzeak sortzen du halako sasiko hizkuntza bat, ez oso antolatua, enbrionarioa, hiltzen ari denaren eta jaiotzen ari denaren artean jartzen dena. Sasiko elekteta, liken, bizkarroi, tenia hori, zaharrari itsasten zaio, erroak hartan barneratzen ditu, hala esatearren, azpitik tapizatzen du, herpes eta legen bihurtzen da, hartaz elikatzen da eta ahuldu egiten du. Txikia, formagabea, desitxuratua da; nanoak zer edo zer du munstrotik. Itxuragabekeria hori zurrupatzek erraldoia unatzen du. Horrela, erromantzeak latina agortzen du. Indar garraiatze horrek, luzaro, hizkuntzarik sendoena ere hiltzen du. Mintzaira bizkarroia ere, aldi baterakoa baino ez denez gero, hiltzen da. Ez du euskarririk gabe bizitzerik lortzen. Mihura ez da artea baino luzaroago bizi izaten. Orobat, latinak azken hatsa ematen duenean, erromantzea ere birrintzen da eta, orduan, tokia izaten da hizkuntza berri oso eta bideragarrietarako, amona hil ospetsuaren ondorengoentzat, eta zoru berean kamusten dira italiara eta espainiera hegoaldean eta frantsesa iparrean. Giza pen-

19 Waterloo batailan jeneral batek esandako jatorrizko biraoa esaldi horretaz eman zuen.

tsamenduak, organo berrien jabea dela, atzera ere hitz egin dezake.

Eta urritu gabe berba egiten du. Danteren italierak ez dio Tazitoren latinari zorrik uzten.

Aldaketa horiek, hizkuntzatik hizkuntzarakoak, lehenalditik etorkizunerakoak, sentontasunetik egun txintarakoak, neketsuak dira. Itzulpenek bide ematen diete, oso aurretik prestatzen dituzte, leuntzen, errazten. Itzulpen guztietan nahastura dago. Hizkuntza itxuraldaketez, aurretik, nahasketa behar dute. Hizkuntzen ondare komunaren amalgama hori prestakuntza da.

Giza espirituak, berez bakarra, askotarikoa da ustelkeria bitarte. Mugek eta geografi antipatiek zatitu eta finkatzen dute. Gizakiak loturak galdu dituzenez gero, giza espirituak batasuna galdu du. Giza espiritu asko dagoela esan liteke. Giza espiritu txinatarra ez da giza espiritu grekoa.

Itzulpenek tarteko trenkada horiek eraisren dituzte, horrelako jokabideak suntsitzen dituzte eta giza espiritu ezberdinen arteko komunikazioa bideratzen du.

Ideien komunikaziorako beharrezko izanda, gainera, erabilgarri dira, lehenik, hizkuntzen iraupenerako eta, gero, eraldaketarako.

Idazle guztiengan den enigmaz berba egin dut. Enigma horrek itzultzailea tentatzen du, eta, deszifratzen ez badu, enigmak itzultzailea hilko du. Eginkizun neketsua da beti, eta itzultzaileari eskatzen dio historiagile izateko filologo bezain bestean; eta filosofoa izateko, gramatikari adina; sena izateko, adimena beste. Eta zer jazotzen da idazlea poeta

denean?, zer gertatzen da poeta profeta denean?

Begira iezaiozue Bibliari. Zenbat autu filosofiko, kronologiko, historiko eta, are erlijioso ere argitu ditzaketen Pentateukoan era askaezinean bilbatuak diren hastapen elohimtarrek eta yahvehtarrek! Hasieran, Jainkoa Ahalguztiduna baino ez da, gero Betiereko bihurtu zen, eta lahar izekian Elohim Yahveh bihurtu zen (Exodoa, 3 eta 6): «Abraham aurrean Elohim moduan agertu nintzen, hire aurrean Yahveh azaldu nauk!». Biblia erro horren inguruan biratzen da. Itzultzaileak ez dira hortaz behar beste ohartu. Hortik nahasmen asko, auzi ugari, hainbat heretikotasun eta sutzar bat baino gehiago. Homero ez doa Bibliaren orpotik kontrakarrei dagokienez. Homerok itzultzaile geldiezinak baino ez ditu onartzen. Non da haren benetako zentzua? Halere, ez da hura baino idazle argiagorik. Baina entzun iezaiozue Horaziori: *grammatici cercant* [«gramatikariak eztabaidaka»].

Homero, hasi-hasieran, ahozkotasuna zen. Idatzi beharrean, kantatu egiten zuten. Ehun urte ondo joanda ziren koblakari bati hura idaztea otu zitzaionean. Halere, kondairari sinetsiz gero, Osimandiasen Egipton lehenengo liburutegia eratua zuen, Espirituaren Farmazia zeritzona. Homero aurretik, Linok bere poemak pelasgostar²⁰ karakterez idatzi zituen, eta, Diodoro Sikulok dioenez, Homeroren maisu batek, Pronapidesek, Linoren alfabetoa zekien. Beste batzuek Pronapidesi Femio deritzote. Alfabeto hura, agidanean, silabikoa zen, beharbada hierogli-

20 *Pelasgos* izeneko herria Atikan bizi izan zen. Hizkuntza indoeuroparra omen zuten, baina ez ei zegoen beste hizkuntza indoeuroparrekin erlazionaturik. Hiri estatuan bizi ziren.

fikoa. Homeroren lehenengo aleak, Irlandako menditarren eta zelten poemak eta Ossianen epopeia laburrak legez, zatika idatziak dira, koblakari bakoitzak zati bat izkiriaturik, eta idazterakoan erabili zuten idazkera silabiko eta zurruna, letra alfabetoa baino lausoago den hura, adiera bati baino gehiagori eta are kontraesanari ere bide ematen dienez gero. Pisistratok txataltxoak egokitu zituen. Horra hor jatorrizko testuaren gaineko zalantzen jatorria. Hara hor Homeroren hautua egiteko aukera. Pausaniasek bere aldakiak jaso zituen, eta Zinetok ukitu zituen. Pindaro eskoliastak pasarte batzuk ezabatu zituen, baita Eustaziotik errektifikatu ere. 1758.ean, Klotz kritikariak zalantza egiten zuen Eustazio eta eskoliastaren artean. Bestalde, Aristarkoren karrakaduren berri eman zuen.

Iliadako IV. kantuko pasarte batek lau irakurkera eskaintzen ditu, eta horrek *madame* Dacier pozarren jartzen du. Eskoliastak kometa ikusten duen tokian, Clarke-k izar uxoa baino ez du ikusiko. Eskoliastak uzta lapurreta hutsean utzi zituen kurriloen eta pigmeoen arteko istiluak. Akileren orpoa ez da *Iliadan* agertzen egun ezagutzen dugun moduan. Ba ote zegoen, bederen, Pisistratok moztu eta egokitu aurretik? Hubert Golzius baiezkotan dago; Raimondo Cuniccio, Ragusakoa, *Iliada* latinera itzuli zuena, ezetzean. Bianchinik sententziatu zuenez, *Iliada* Talasokraziaren, hau da, nabigatzeko askatasunaren gaineko eztabaida da eta gaitzat du ez Helena, Ponto Euxino eta Egeo arteko nabigazioa baizik. Bianchiniren aburuz, Martitz Armenia da, Minerva Egipto, eta Juno, «beso zuriekikoa», Siria zuria. Camoensen ustez, Martitz Jesukristo da eta Venus Eliza. Horra hor Homero, ortodoxiaren erreaktiboen mendean, *Kantarik Ederrenaren*

moduan. Apolodororen ustetan, gaiaren mamia Homero joniarra izatean datza, *Iliadaren* interesa laburbil baitaiteke joniarrak karioei nolako gorrotoa zieten erakustera. *Iliadako* XV. Kantuko ahapaldi batek «hiru gara Saturnoren seme-alabak» dioenez, Platonek *Gorgias* lanean Homerori leporatu zion halako Hirutasun bat asmatzea, eta Laktantziok, izan ere, ez zuen batere ukatu. Zer erantzun dakieke itaun horiei guztiei? X. mendeko eskuizkribua, Villoisonnek Venezian topatua, hirurogei eskoliastek oharrez hornitu zuten arren, ez da ezeren argigarri. Drellincourten *Homericus Achilles* lanak ez du argi handirik egiten. Glosagileek argimutillak elkarri pasatzen dizkiote; Ernestik, Homeroren iruzkingileak, Hyneri, Virgilioren iruzkingileari. Hesikioren iruzkina ez atzera ez aurrera geratu zen Kaltxasen $\Phi\rho\acute{\alpha}\sigma\sigma\alpha\iota$ dela eta, batzuetan, *tu die* ematen du, bestetan, *tecum expenden*, eta ez dio bestelakorik. Kritikari batzuek arazoak alboratzen dituzte ezabapen bidez; horrela, Andromakak Astianakte gainean esandako bederatzi ahapaldi liliagarri eta goibelak hainbat ediziotan desgertu dira. Bidaiari ingelesak, Woodek, Aristoteles, Pausaniasen eta Estrabonen testuak aurrez aurre jarri zituen. Appiano gramatikariak, testu eta zentzu anitzen aurrean zer egin jakin ezik zegoela, zeri oratu jakiteko Homeroren itzalari deitzea erabaki zuen.

Eta orain beste berba bat gehiago.

Itzulpena anxioa da. On da poeta bat eskuratuaz norbera handitzea. Berdin on da filosofo bati atxikitzea. Auzokide onaren aholkua da. Nazioak, are beregainenak ere, filosofi horniaren beharreko egoera intelektual eta moralen aurrean makurtu beharrean egoten dira. Teokrazia zuhur da, eta ezarizarian sartzen da. Luterok kristautasuneko

salatu zuen, eta harrapatu egin zuen, eta jende aurrean lotsagarri utzi, baita kanpora egotzi ere. Une hartan, oilategia hankaz gora jarri zuenez gero; Luterori esker, teokrazia Erromatik bidali zuten. Baina teokraziak ederto daki gauzak moldatzen. Luterok Erromatik irtetera behartu zuen, hortaz, berbera sartu zen Luterorengana. Italian galdu zuena Ingalaterran berreskuratu zuen. Papista zen, episkopalista bihurtuko da; apezpikua suntsitu duzuela?, presbiteriar egingo da; abade-tza indargabetu duzuela?, fanatismo huts eta garbia bilakatuko da. Kuakeroaren txanoak tiarak adina itzal botatzen du giza garondoan. Itzal ez hain txarra, egia esan, baina arrisku-tsua, ezbaierik gabe. Ingalaterrak, haren izate politiko handi eta maiestatezkoa alde batera utzita, bizitza materiala eta mistikoa bizi ditu batera. Materia subirano da Ingalaterran, eta, onar dezagun, subirano erabilgarri eta izugarria da: banka, burtsa, industria, merkataritza, ekoizpena, zirkulazioa, permuta, aberastasuna, oparotasuna deritzote; Ingalaterran materiak aurreramendua oztopatu eta zirikatzen du; pisu mortua eta iskanbila da, gizakia zamatu eta goratzen du, berunez bete eta hegoz estaltzen; hegoak nagusigo dira eta beruna urre. Negozioak egitea, horra hor gogo ingelesaren borondate irmoa. *Time is money*. Hortik haren sukarra. Ingalaterrak (ederretsi egiten diogu) merkataritza ontziak bidaltzen ditu ozeanoko ibilgu guztietarantz. London zurrumbilo hutsa da, zirkulazioa ia izua sortzeko modukoa da; jendetza London zubian agertzen da amaierarik bagako kate moduan, eta gizaldra hori guztia arineketan eta elkarren ondo-ondoan doa; ez dago begiluzerik, ikuslea ameslari da, inor ez dabil kaletik noraezean. Nonahi giza abar lanpetu eta presatua, materiala. Tamesis ibaia desa-

gertzen da baporeen ugaritasunak estalia, omnibuseko zaldiek, batez beste, hogeita bat egun jasan ohi dute onik. Izan ere, bitxi gertatzen da esatea, baina egia biribila da, bizitza materiala bizitza fanatikorako prestaketa da. Biblia ondo finkaturik dago salgaien gainean. Azken buruan, jaio eta hiltzen gara, gure gainean iluntasuna, gure buruen gainean infinitua, urdina egunez, izarreztatua gaeuz; zapalkuntza misterioitsua, noraezekoa da obsesio horri irtenbidea topatzea. Gizakia apurka-apurka kezka horretatik ateratzea, horra erlijioen arrakasta. Espiritua, goiko-arenganako arduratik aske, segituan gertuago egongo da kalkuluetarako eta negozioetarako. Edozer tarrapatata eta behin betiko sinesten dugu, eta lasai asko gelditzen. Horra hor fenomeno ingelesa. Teokraziak ez du bestelakorik eskatzen. Trebetasun bat du: gizakia erdi bi egiten daki. Egoismoa, lagunkoi, Jainkoarekin bat hartuta. Teokraziak horrelako trikimainetan dirdira egiten du. Negozioei kanpoko gizakia utzi eta barne gizakiaz jabetzen da. Barnetik zurrutzen da hilobia. Erlijioa gizakia zeharkatzen duen infinituaren izerdi sakona da; baina erlijioak kareztadura dira. Aski da dena delako bizio horien gainean fede eskutxo bat jotzea. Katolikoek zein protestanteen artean hala dela igartzen da. Hemen, indar handixeagoa egiten dute Testamentu Berrian, han Zaharrean. Josulagun jokabideak kultu guztietarako bali du. Teokrazia, batez ere Ingalaterran, erregina izatearren, lagun onbera da, sorgortzearekin konformatzen da. Gizakia barnetik kimeraz eta aurreiritziz janzten du. Ezein egiari oztopo egitearren, haren burezurpean ideia aizunen amaraun zabala zabaltzen du. Orain, aske zara. Gestionatu, kontratatu, saldu, erosi, indusi, erein, nabigatu, gastatu,

aurreztu, erabili, gozatu, gainerakoak goberna itzazu. Artez ixten zaituzte inguruxto batean zuek konturatu gabe. Asko sinetsiko duzu, eta gutxi pentsatuko. Gizakiari kanpoko joan-etorria uzten dio, eta espirituan hesia jartzen; Materiako gizakiak on deritzona egin dezake, kontzientziako gizakiak oztupoak ditu; halere, kontzientzi askatasuna dago, baina kontzientzi askatasun hori bezatua da ohartzeke ere, eta bere buruaren inguruan dabil jiraka, beti oztupo ikusezin batetik honantzago, ekandu erlijioso jakin batzuk sendotzen dira, ekandu politikoetatik erabat desberdinak. Nazio horretan fede artikulu eta sinesmen jasanezinen metaketa eratzen da, halako jainkojale eskola benetako bat; ezari-ezarian eta atertu gabe aurreiritzi aldra haziz doa: fanatismoak, bere pentsamolde bereziaz, adimenak apurka-apurka trabatzen ditu, testuak agintzen du, letra eztaba daezinak agintzen eta debekatzen du; arrazoimena, salatua eta susmagarritzat joa, urrats ez urrats atzera doa, denok aho batez men egiten dutela, txikiespenezko begiratu uni-bertsal batek pentsalaria noraezean eta, bartzuetan, kikiildurik uzten du, beharrezko denean, halako epaitegi bereziak izaten dira, Akademiako auzitegia, ikus Collenso apezpikua, eta horrela ezartzen da herri aske baten baitan liburu baten tirania. Tirania ikaragarria. Puritanismoan zurruntasuna dago. Odolean dogma larregi dituen nazio batek, azkenean, dogma horiek artikulazioetan ere izango ditu, aurreramenduaren abantzen durako eragozgarri diren gogodurak. Konformista oin zainartuduna da. Bibliak jota egon daiteke, oin zainartua eduki daitekeen

moduan. O, herri handi hori, kontua aurretatzea da, ez atzeraka dibagatzea. Teokraziak emaitza hori heltzen du, haren aburuz, maisu lan hutsa: pentsamendua zurruntzea. Askatasun zibilak berak sufritzen du. Ez duzu denda igandean zabalduko. Ez zara domekan museora joango, ez zara ikuskizunetara joango igandean. Idazlea, irakasle eta argi emaile zaren hori, ez duzu irakatsi edo argirik eman behar igandean. Egun horretan egunkaririk ez. Prentsa zentsurak, jainko zuzenbidez sorturik, zurrun jokatzen du zazpi egunetik behin. Guernesey-n emakume errukigarri bat harrapatu dute oinkari bati baso bete garagardo ematen: isuna eta espetxea. Beste igande batean, bizimodu badaezpadako bidaiariak dakartzen baporea heldu da, anti-goaleko predikari batek kaiko moilatik anatemata bota die denon aurrean, festazaleentzako madarikazioa, ostatu guztiak itxita izango dituzte, atzera ere ontziratatu beharko dute jan eta edan ezik. Eta, jakina, absurduan ere logika denez gero, desohorea poesiarentzat eta poetentzat, horrelako txoriak beti kalio-tatik irteteko gai izaten direlako. Gorroto gorria arteari. Ikonoklastia. Ingalaterran Biblia diziplina bihurtzen da osotoro. Bibliak eserlekua du Parlamentuan eta Moisesek Cobden kontrolatzen du. Ingalaterran Espainian beste kaperak dago *toise*²¹ koadroko. Ingalaterrak iluntze hori jasaten du. Bera eta askatasunaren artean puritanismoa, ganduak eguzkia estaltzen duenean legez. Hara, zaudete erne, zuen artean askatasunak zelai zabalean hazten dira, baina sineskeriak ere bai. Irakak garia mehatxatzen du. Sastraka bizia da, edozeri ateratzen dio onura, gogaikarri

21 Frantziako neurri zaharra: metroa eta 946 milimetro.

eta zitala da, ito eta harramaska egiten du. Ingelesen aurreiritziak, azken buruan, oso garaturik daude, Ingalaterrak jorratzailea behar du. Jorrari ernea, indartsua, nekazina, gau eta egun zutik eta umore onean dena, belar txarrari, beharrezko izanez gero, gupidarik gabe barre egingo dion jorratzailea, eskuak arantzetarako hatzapar bihurtzeko gauza dena. Ironia asunaren aurka.

Frantzia, literario baino poetikoagoak izan diren bi mendetan artearen aldetik jan ari-nean egon arren, egarri zen, poesiaren egarbera. Shakespeare edan gura hori oparo hiltzen duenetakoa dugu. Ingalaterrak filosofia behar du, eta Frantziak Shakespeareren itzulpen bat eskuratua duenez gero, orain, auzokoari, Frantziari, Voltaire itzultzea komeni zaio.

